



# GURE ARTETIK



**A**PALTZEA amaitu-orduko, jeiki zan Mikel maitik, eta irteteko abiaturik, ur-bildu zan oraindik mayan eserita zegon bere emazteagana, aguf egiteko.

—Gero afte, Miren.

Baña Miren'ek, ez-entzun eginda, okalondo bat mayan eta buruari eskuaz eukiaz lendik zeukan egokera ontan, gogoetatsu jafaitu zuan.

—¿Dagizudan agufak ez du zure erantzunik beaf?—Itandu zion ben-ben senafak.

—¡Emango dizun atsegiñagatik..!—bururik jaso-gabe erantzun zion emazteak.

—¡Zu, beti bezela, gozakaitz!—bat-batian esanda, Mikel'ak irteteko bizkof eman zion bere emazteari.

Baña jatokiko atera eldu-orduko, onen negaf-zotiñak gelditu zuten, eta, olde-ixañdun, atetik itandu zion:

—¿Zer dala-ta malko oyek orain?

—Uste det negaf-egiteko zoriyan arkitzen naizela, Mikel.

—¿Zu negaf-egiteko zoriyan, Miren?

Eta afituta bezela ori itanduaz, befiro urbildu zan bere emazteagana. Onek, negaf-alditxo bat egin-ondoren, erantzun zion:

—¿Ori itantzen dirazu? ¿Ote-da ludi guzian ni baño emazte zorigabeagorik?

—¿Zu zorigabea? ¿Zer dala-ta?

—¿Zer dala-ta, Mikel? ¡Niganako zure maitasunik-eza, ziyorik asko bai-dala uste det nere burua zorige arkitzeko!

—¡Ara beliko leoa! Ofetara ba-guaz, beste-ofenbeste nesake neuk ere, Miren. Niganako zure maitasunik-ebak zorigetuegin naula—erantzun zuan, bare-bare, senafak, esertzeko bat afituta, emaztearen ondoan eseriyaz, gauza argitu-nairik bezela. Onek, negaf-egiteari utzita, afituta erantzun zion bitaftean:

—¿Etzaitudala maite, uste dezu, Mikel?

—Itaun berori dagizut, Miren.

—¿Ez da nire zindotasuna, dizudan maitasunaren agerkai bat?

—¿Eta ez da ofela nerea ere?

—Ez det azitzen gure emaztea beaf dan ardura, eta ez det azitzen eta gure

ondasunagatik begitzen, emazte on bati dagokion bezela, ama samur bati dagokion bezela?

—¿Eta ez naiz ni zugatik eta gure semetxo oriatik lanian alegintzen?

—Bai, Mikel...

—Orduan... nerea ez da erua, Miren.

—Baña nerea ere ez,...

—¿Zerik gauzka, ba, gu nolabaiteko senar-emazte batzun gizan, beti elkar aitu-ezinda eta beti asefe?

—Zu, ezkon-aufetik zina ba'zina orain, ez litzake gure artean onelakorik. Orduan neretzat ain maitari ta gogagiña zinala, bai-zirudin ni-gabe bizi ezin zinala inola ere. Uzten ninduzun bea-bea, eta beiz nereganzeko pozian. Orain nereganzaten zera bea-bea eta beiz laister utziko nazun pozian.

—¡Emakume! ¡Ori da zeozer esatea!

—¿Ez da egiya len une guzietan nerekin zinala al-guzian, nere bila zinala, eta orain nai guzian egon zinakena, zure lanak uzten dizuten astiya, otordu edo lo egiteko garaya izan-ezik beste guzia etxetik at, nigandik uruti ematen dezula?

—Len, nere zoriona egingo zuan emaztegaraya zuan ikusten nuan garayan, itxaropen onek nigan piztu zuan maitasunaren indarak une ta aldi guzian zuanontz bultzatzen ninduan. Orain, uste nuan zoriona zurekin arkitu-ezaren espenak zuanontz aldentzen nau, egiya.... Nere gogoaz aituko zan beste gogo baten orde, jantzi-keta, apainduri ta andinaikeriaz bestetzaz aitzen az dan gogo bat arkitu det zuan. Eta ezin gure gogoak bata besteaz bat-egin, zure zaletasunak nereak ez diralako, eta nere zaletasunak zureak ez diralako.

—Ez; zure zaletasunak, zure gogoaz aituko diran gogoak, of, nere zoritxafa dan Batzoki oftan daude. Of dituzu emaztea baño maiteagoko dituzun lagunak, nerekin baño obeto aitzen zeran adiskidiak....

—¿Norekin ote-nuke geyago aitzea, zurekin baño?

—¿Zer naizu, ba? Emakume izateari utzi eta gizonen naspiletan sartuta zure emazteu ikustea?

—Ez emakume izateari, baña bai txoro izateari uztea jau nai nuke! ¿Uste dezu emakumeak, emakume izateko, apainketa, aundikeri, jolas eta txorakerietzaz bakarik oldoztu bea duela? Emakumeak. bea bezelako emakume izateko, bere bizikera eta berari dagokion anian, Jainko ta Abefi-aldez oldoztu bea du, ta beraren alde alegindu bea du. ¿Zer nayago nuke nik, nere lanen zamearen nekez atsedem-bila etxeratzen naizenean, nere emazte maitea soñez eze, gogoz ere sendi-bafuan, emen-ixe nere ondoan, arkiturik, nere usteak bereaz bat-eginik, gure soñak bezela gure gogoak ere baturik, beragan zoriona arkitzea baizik?

Eta emaztearen biotza ukiturik, gaxo onek, samin-negarari emanaz, ekin zion:

—¿Baña erurik ote-det nik guzi ofetzaz, Mikel, baldin inork ezpa-dit irakatsi zuk dasakidazun bezelakoa izaten?

—Egia, Miren. Emakumearen eragabekerien efudun gizasemeak gera. Beti zuen edeftasuna aipatu ta gozatzeko gure lei txoroaz, ez dagigu besterik zuen gogoak makutzeta baño, onela sendi bat eraltzeko gai-ebak egiten zaitugula, Abefiari kaltea ezafiyaz.

—Baña zure emazteak gaufik ez du nai bere Abefiarentzat kaltegarri izan. Eta aleginduko da gogo osoa zure ta biyon semetxuagan ipintzen.

Eta senar-emazteok alkafi egin zioten begitze samurrian ezagutu zan, orduan betiko, biyentzat bizitz zoriontsu bat asten zala.